



ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus

AZAROAK 25, EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA

ZALDIBIAKO UDALAREN ADIERAZPEN proposamena

Zioa:

2003tik aurrera, emakumeenganako indarkeriari buruzko datuak jasotzen hasi zirenetik, 115 emakume eta 11 haur erailak izan dira Euskal Herrian. Zenbaki onartezin honen atzean izenak eta izanak daude. Erauzitako bizi proiektuak. Bereziki memorian gorde nahi ditugu, 2022an zehar erail dituzten Sara Pina Iregi, Felisa S. P. eta Maria Luisa Larrañaga.

Urte honetan ere bereziki aipatu nahiko genuke, jai giroan emandako erasoen gorakada eta bereziki sustantzia kimikorik gabeko ziztaden bidez egindakoak. Antolatutako emakumeenganako gorroto baten erakusle dira beldurra eta kontrola bilatzen duten eraso hauek. Hala ere, eraso bakoitzaren aurrean, hauek salatu dituen Mugimendu Feminista saretu bat atera da kalera. Isiltasunak normalizazioa dakarrelako, onarpena. Eta aspaldi esan genuen ez gaudela egoera hau gehiago onartzeko prest.

Urte luze hauetako lana izan da Indarkeriari maskara kentzea. Ez da lau zororen kontua. Sistema patriarkal sendo baten ondorioa baizik. Indarkeria matxistei buruz egindako makro-inkestak datu larria mahai-gaineratu zuen: bi emakumetik batek indarkeria matxista pairatu du bere bizitzan zehar.

Azaroak 25 hau beraz, indarkeria matxistaren alderdi desberdinak identifikatzen jarraitzeko eguna izango da, jendartean normalizatuen dauden sotilenetatik hasita, hala nola ukitzeak; ahozko lizunkeriak; mezu eta adierazpen sexistak; janzkera, jendarte-sareen erabilera edo lagunartea kontrolatzea, eremu publikoa askatasunez okupatzeko zailtasunak; edota emakume eta gizonen arteko berdintasuna zuzenean erasotzen dituzten administrazio-erabakiak. Bigarren estadio batean, sexu-erasoak eta eraso fisikoak egongo lirateke, eta, esparrurik bortitzenean, erailketak.

Nazio Batuen Erakundearen ekimenak, «Hiri seguruak eta espazio publiko seguruak», espazio publiko seguruak eta ahalduztaileak sustatzen ditu emakumeentzat eta neskentzat, sexu-jazarpenik eta bestelako sexu-indarkeriarik gabe, berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko Herri-Itunaren ildotik.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan eragiten duen Berdintasun Legearen erreforma egin da pasa den ikasturtean, indarkeria matxistaren kontzeptualizazio irekiago bat ekarri duena. Espainiar estatuan ere, Askatasun sexualen legea onartu da besteak beste. Urte luzeetan mugimendu feministak mahai gaineratutako hausnarketak eta eskaerak kokatu dira lege testu hauetan, hala nola abusuaren eta erasoaren arteko banaketarekin amaitzea; indarkeria matxista bikote eremutik at eta hainbat alorretan ematen dela ikusaraztea; indarkeria digitalak, instituzionalak eta obstetrikokoak izendatzea; sexu erasoak artatzeko krisi zentroak eraikitzea; eta abar luze bat. Orain, hitzetatik ekintzetara pasatzeko garaia da. Garrantzitsua da marko bat ezarriko duten legeak berritzea edo sortzea, are gehiago mugimendu feministak eskatutako norabidean egiten denean, baina hauek ez dute ezertarako balio, garapenerako aurrekontu eta baliabide teknikoak ezartzen ez badira.

Urte honetan gainera, atzerakada ekonomikoaren mamua haizatzen ari den honetan, inoiz baina ozenago aldarrikatu behar ditugu politika eta zerbitzu publikoak. Berdintasunaren norabidean kokatu edo indarkeria matxistari aurre egiteko baliabideak ere oinarrizko behar bezala identifikatzen ditugu. Dauden baliabide eta proposamen egokiak babestu edo berriak sortzeko momentu





ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus

aproposa da hau ere. Jendarte hau osatzen dugun guztiok konpromiso hori hartu behar dugu. Eta batez ere erakunde publikoetan gaudenok.

Gutariko bakoitzari dagokigu egoera hori aldatzea, eguneroko zereginetan hasiz, gure inguru hurbilenean jardunez.

Horregatik, nazioarteko egun honetan, sendo adierazi nahi dugu Euskal Herria feminista, justu eta ekitatezko baten aldeko aldarrikapena, bide horren eraikuntzan honako konpromiso hauek gure gain hartuz:

1. Kontzientziazio-, sentsibilizazio-, prestakuntza- eta erreparazio-lana sustatzen jarraituko dugu, indarkeria matxistak desagerrarazteko bidean aurrera egiteko.
2. Indarkeria matxistaren errealitate anitzei behar bezala erantzuteko beharrezkoak diren programak-, neurriak-, zerbitzuak martxan jarri edo/eta indartzen jarraituko dugu.
3. Jai giroan ematen diren erasoei erantzuteko eta hauek prebenitzeko protokoloa eguneratuta, lanketa hau Mugimendu Feministarekin eta Jai Batzordearekin batera egiten jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu.
4. Indarkeria matxistarekin zerikusia duten baliabide, zerbitzu eta prozedura guztiak, administratiboak nahiz judizialak, publikoak, doakoak eta ez diskriminatzaileak direla bermatzeko deia egiten dugu.
5. Indarkeria matxistaren biktima diren adingabeak hautematen eta esku-hartze goiztiarra egiten laguntzeko, udal-zerbitzuen bidez, beste eragile batzuekin lankidetzan (hezkuntza-, osasun- eta polizia-agentek, etab.), eta dituzten beharrei eta baldintzei erantzuteko konpromisoa hartzen dugu.
6. Neskei, gazteei eta emakume helduei zuzendutako jarduerak antolatzen jarraituko dugu.
7. Neska, mutil, gazte, emakume eta gizonekin afektibitatea, harreman ereduak, rol sexistak gainditzeko estrategiak, eta parekidetasuna lantzeko programak garatzen jarraitzeko konpromezua dugu.
8. Prozesu parte hartzaile feministan oinarrituta, ikuspuntu interseksional batetik, herrian zaintza lanak demokratizazio bidean jartzeko konpromezuarekin jarraituko dugu.
9. Herriko norbanako zein mugimendu feministarekin elkarlanean, herrian indarkeria matxistaren kontrako eta emakume eta nesken ahalduntzea sustatzeko programak eta ekintzak garatzen jarraituko dugu.
10. Horretarako, 2023ko aurrekontuetan arlo hauetara bideratutako partidak indartzeko konpromezua hartzen dugu, inolaz ere murrizketarik egin gabe.
11. Foru Aldundiari, Emakunderi eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko aurrekontu-partidak handitzeko, berdintasun zuzendaritzak eta epaitegi espezializatuak modu iraunkorrean sendotzeko eta indarreko legeria berraztertzeke konpromisoa hartzeko.
12. Zaldibiako Udaletik, borroka feministaren alde hartu dugun konpromisoa berresten dugu, indarkeriarik gabeko gizarte demokratiko bat eraikitzeke bide eta tresna nagusia den heinean. Bat egiten dugu mugimendu feministak azaroaren 25erako deitutako mobilizazioekin. Herritarrei eta jendarte osoari ere dei egiten diogu mobilizazio horretan parte har dezaten. Zaldibiako kasuan, iluntzeko 20:00etan elkarretaratzea deitu da plazan.

Zaldibia, 2022ko azaroaren 21ean

EH BILDUko ordezkarien aldeko bozkekin eta EAJ-PNVko ordezkarien kontrakoarekin onartua.

